

# Laburtzapenak

---

## Laburtzapenak

Laburtzapenak hiru taldetan sailkatzen dira: siglak, ikurrak eta laburdurak.

### Siglak

Siglak letra larriz eta jarraian idazten dira: BEZ (IVA), NAN (DNI)...

Siglak, ahoskeraren arabera deklinatu beti: GFAk, BBVArekin, DEGIko...

Hala ere, zenbait kasutan marra jarri behar da:

- siglaren amaieran eta atzizkiaren hasiera letra bera denean: BBK-ko, AEK-k
- siglaren amaieran -r letra eta atzizkiaren hasieran bokala dugunean: KOR-i, IKERZER-entzat
- letra larriz doazen testu zatietan eta izenburuetan: DYA-REN LAGUNTZA, EITB-KO EGITARAUA

### Ikurrak

Punturik gabe idazten dira, eta azpian dagoen hitz hori bezalaxe deklinatu behar da. Ikurra eta deklinabide-atzizkiaren artean marratxoa jartzen da (mm-ko, €-tan, h-ko)

Hainbat ikur erabilgarri

- g: gramo
- kg: kilogramo
- t: tona
- km/h: kilometro orduko
- l: litro
- m: metro
- cm: zentimetro
- h: ordu
- min: minutu
- s: segundo
- €: euro

### Laburdurak

Hitz edo esaldi bateko hainbat letra kenduta lortzen den letra-segida laburtua (zk., jn./and., erref...).

Puntuz idazten da (zenbat hitz, hainbat puntu) eta azpian dagoena irakurtzen da.

Hona hemen hainbat hitzen laburdurak:

- apartado de correos / posta-kutxa: P.-Ku.
- casado / ezkondua: E/EZ
- certificado / ziurtatua (postan): ztua.

- código postal / posta-kodea: P.-K.
- cuenta corriente / kontu korrontea: ktu.kte., k.k.
- departamento / departamentua: dptu.
- derecha / eskuina: esk.
- deuda, deber / zorra: Z
- etcétera / eta abar: e.a.; etab.
- factura / faktura: fra.; fak.
- fecha / data: d.
- firma / sinadura: Sin.
- firmado / izenpetu(t)a: izpta.
- izquierda / ezkerra: ezk.
- nota, aviso / oharra: oh.
- número / zenbakia: zk.
- número de cuenta / kontu-zenbakia: ktu.-zk.
- página(s) / orrialde(ak): or(r).
- peseta / pezeta: pzta.
- por ejemplo / adibidez: adib.
- señor / jauna: jn.
- señora / andrea: and.,A.
- sin fecha / datarik gabea: d.g.
- soltero / ezkongabea: G/EG
- teléfono / telefonoa: tel.
- total a percibir, haber / hartzeko: H
- visto bueno / ontzat emana: o.e.